

HELDUEN BERTSO-ESKOLENTZAT IKASTAROAK 2014

OINARRIAK

Helduen bertso-eskolei IKASTAROAK antolatzeko laguntza luzatzea da ekimen honen helburua. Aukeran ikastaro sorta bat eskaintzen da, baina **proposamen berriak ere** egin ahal izango dituzte bertso-eskolek.

Ikastaroaren finantzaketa erdia Bertsozale Elkarteak lagunduko du. Gainerakoa (125€) bertso-eskolak berak ordainduko du.

Bertso-eskola bera izango da ikastaroaren antolatzailer, eta nahieran itxuratu ahal izango du: talde barrurako ikastaro gisa, herri mailara zabalik, bailarako bertso-eskolekin elkartuta, bere urteko ekitaldien barnean...

Informazio gehiago nahi duenak jarri gurekin harremanetan:

bertsoeskolak@gmail.com

Eskaerak egiteko epea: 2014/05/05

Ikastaro bakoitzaren iraupena: ordu eta erdi, bi ordu

Informazioa eta eskaerak:
bertsoeskolak@gmail.com

Ikastaro gehiago proposatu ditzake zure bertso-eskolak

IKASTAROAK



“Errimak Umorez: zerekin egiten dugu barre?”. Ainhoa Agirreazaldegia

“Umorea zutabe nagusia da bertsolaritzan. Emakumeok plazan ari garen honetan, espazio publikoko umoregile izan nahi dugu. Eta zertaz egiten dugu barre emakumeok? Zerekin egiten dugu umorea? Badu baldintzarik (guretzat) umoreak? Egungo kode nagusietan nola mugitzen gara? Publikoak, gai-jartzaileek... zein funtzio dute?”



“Zelan epaitzen da (dugu) umorea txapelketan?”. Unai Iturriaga

“Saio honetan, umoreak txapelketetan duen tokia eta balorazioa dira aztergaiak. Zenbait azalpen eta ikusentzunezko adibideen bitartez, txapelketetan umorea zelan baloratzen eta epaitzen den (dugun) aztertu gurako nuke. Gura diot, ze, batetik, bertsoen hautaketa mugatua da eta bestetik, azterketa hori saioan bertan parte hartzen dutenekin osatzea eta aberas-tea da asmoa”



“Bat-bateko bertsoen bat-bateko epaia”. Iñaki Aurrekoetxea

“Epaitza lana eztabaidatua bezain ezezaguna dela egingo nuke. Txapelketekin duen lotura saihestezinak ikusmin handia eta morbotik dezente sortu izan dio. Bertso-eskoletan epaileen lana erakusteko saioa da hau eta, horretarako, hausnarketa aktiboa proposatuko dugu: epaitzeko lanaren gaineko mitoak apurtzen ahalegintzeaz gain, epai-irizpideak ezagutuko ditugu, horiek eztabaidatu eta praktikan jarri, zenbait bertsoaldi epaituz eta emandako epaien inguruan taldean gogoeta sustatuz”

IKASTAROK



“Izan gai(-jartzailea)”. Unai Elizasu

"Merkealdi garaitan, gomendioa da: 'Dendetara joan aurretik, garbi eduki behar da zer nahi duzun!'. Bertso saio batean, gaiak jartzerako garaian, dendara joan aurretik bezala, gauzak-gaiak, zer lortu nahi dugun, oso garbi eduki behar da. Baina zer da gauzak garbi edukitzea? Nola dakigu, ona den, txarra den... ikastaro honetan, dendara nola joan azalduko zaizue".

Langaiak: Nola egituratu saioa. Gaiak sailkatu. Gaiak sortzeko prozesuak. Geroaren kudeaketarako estrategiak. Nola aurkeztu, eta nola ez. Bertsolariei nola eta zer komunikatu, saio aurretik eta bitartean. Intentzionalidadearen egokitasuna. Azalpenak eta ariketa praktikoak tartekatuko ditugu".



“Gaiaren trataera, bertsolarien aldetik”. Maialen Lujanbio

"Gai emaileak gai bat proposatzen duenean hasten da bertsolariaren barne zurrunbiloa: ideia bilaketa izan liteke, printza askoren artean bereiztu eta aukeratu beharra suerta liteke, ezerezetik abiatu eta tiraka ekarraztea gertatzen da sarri; edo, usain bat, aire bat, irudi bat, hitz bat, kolore bat inkontzienteki buruan izan eta haren uberan bertsoa sortzea ere izaten da.

Faktore askok eragiten du bertsoa eta bertsoaren nolakoa: Zer erangin du gaiak berak? Eta gaia emateko moduak? Zenbat ahal du memoriaren inertzia sorkuntzan? Zer pisu du jendeak, eta entzun nahiko lukeenak? Bapatekotasunaren hari mehearen gainean, hautatu ote liteke pausoak norantz eta nola eman?"



“Gaiak eta gaien trataera genero ikuspegitik”. Uxue Alberdi

"Saio honetan bertso-plazetan eta txapelketetako saioetan jarri ohi diren gaiei erreparatuko diegu genero ikuspegitik, baita bertsolariek gaiak lantzeko duten moduari ere. Neutroak al dira gaiak? Gizon eta emakume gisa dugun eraikuntzak nola eragiten digu gaiei erantzuteko orduan? Zenbait bertsoaldi aztertuz eta gaiei gertutik begiratu, bertsolariok, bertsozaleok, gai-jartzaileok, epaileok... izan ditzakegun hainbat joera eta inertzia detektatzen eta eraldatzeko bideak marrazten saiatuko gara".



“Generoa eta bertsolaritza”. Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegia

“Generoak egiten dugun guztian eragiten digu. Are gehiago, egiten dugun hori, bertsolaritza bezala, tradizionalki gizonezkoen eremu izan bada. Gaur egun badira emakume bertsolariak, baina: zein da bizi duten errealitatea? Aurrez egituraturiko bertsolaritza moldean eroso sentitzen dira? Badute euren molde propioa garatzeko modurik? Nolakoa zatekeen bertsolaritza emakumeek garatu izan balute? Zeintzuk dira emakumezko bertsolarien erronkak? Zer dute eskaintzeko? Zer borrokatzeko? Diskurtso feministak zer on eman diezaioke bertsolaritzari? Nola errimatzen da berdintasunaren doinu librean?”



Xabier Amurizarekin elkarrizketan

“Umezaroa eta bertsotan hasiera elkarrizketarako utzirik (nahi duenarentzat), hitzaldia ildo hauetan zentratuko da:

- 1) Sotana eta guztiko apaiz bertsolariaren esperientzia eta orduko giroa.
 - 2) Hiztegi errimatuaren buruera eta burutzea kartzelan.
 - 3) Laurogeiko txapelketa. Kanpo giroa eta bertsolarien barne giroa.
 - 4) Bertso eskolen sorrera eta zabalkunde esplosiboa.
 - 5) “Zu ere bertsolari”, berriro kartzelan. Metodo baten hasiera.
 - 6) Bertso jarriak. Euren garrantzia eta filosofia.
 - 7) Orain nola bizi eta dakusdan bertsolaritza.
- Elkarrizketa izango da oinarri”.
-



Imanol Lazkanorekin elkarrizketan

“Elkarrizketan, azken 80 urteotako bertsolaritzaren historiari egingo diogu errepassoa, eta horren barruan azalduko nuke nere 60 urteotako ibilia: haurtzaro giroan herri inguruan ezagutu nuen bertsolaritzatik, plazako ibilian ezagutu nituen bertsolarietara. Hasi Txirritagandik eta Basarri, Amuriza, Egaña eta Lujanbiora arte, bertsolaritzaren etapa ezberdinak azalduko genituzke. Gero, bertsotan egiteari dagokionez, nik garrantzia handia ikusten diedan hiru gaietaz arituko ginatke:

- Puntutako bertsokera
- Bertsoaren barruan bigarren puntuaren garrantzia
- Bertso jarriak egiteko era. Jarritako bertsoak kantatuko genituzke eta horiek nola egin nituen azalduko nuke”.

IKASTAROAK

Eskaerak egiteko
epea: 2014/05/05

“Bertsoaren oinarritzko eraketa”. Julio Soto

“Bertso baten eraketan, bertsolariaren barne-prozesua nolakoa den azalduko da. Zer, noiz, nola pentsatzen duen. Errimategia lantzeko era ezberdinak jorratuko dira. Landutako guztiaren ariketa praktikoak egingo dira.”



“Bertsolariaren ahotik”. Julio Soto

“Nola antolatzen du bertsolariak bertso-bazkari edo afari bat? Zein eskema jarraitzen du? Zeri erreparatzen dio? Nola prestatzen du jaialdi bat? Eramaten al du doinu, neurri, jarrera zehatzik aukeratuta? Zer dago jendeak ikusten ez duenaren atzean?”



“Doinua eta kantaera”. Jon Maia

“Doinu eta kantaera ezberdinak entzungo ditugu, bertsolariengandik (audioz zein bideoz), eta horien komentaketak eginez, gai hauek landuko ditugu: Doinuaren funtzio komunimatiboa ez-komunikatiboaren azterketa/ Kantaeraren interpretazioa/Ahots propioaren bila, bertsolari pinguinoaren teoria”



“Nola landu etxean, bertso-gintzako ohiko baliabideak”. Karlos Aizpurua

“Bertsoaren sortze prozesu orokorra aztertuko genuke, bertso-gintzari eragiten dioten alderdiak azpimarratuz. Segidan bertso-gintzan ohiko diren zenbait baliabide jorratuko ditugu, eta bertsoak komentatzeko oinarriak ikusi, atzoko eta egungo adibideak lagun. Eta azkenik, baliabidez harago, bertsoan aritzeko zenbait uste, ikuspegi eta hausnarketa partekatuko ditugu, bertaratutakoekin gogoetan edo iritzi trukean aritzeko”.



“Bertso-eskoletarako ariketak”. Amaia Agirre

“Helburua ez da klase magistrala ematea, ezta dekalogo bat eskuratzea ere. Bertso-eskoletan irakasle lanetan ari garenok hutsune handia sentitu izan dugu ordubeteko saioa aurrera ateratzeko orduan. Irudimena eta gogoia badago, baina klasea prestatzeko ez dugu nahi adinako tarterik izaten edo hartzen. Gaztetxoekin zer eta nola landu daitekeen erakustea da nire nahia, baina ez, irakastea. Pista batzuk eta materiala jaso nahi?”



“Bertso-eskola eredu baten erakustaldia”. Arkaitz Goikoetxea

“Bertso-eskola ireki bat egitea planteatzen dut, lau bertsolari trebarekin (tokian tokikoak izango lirateke). Hauxe litzateke metodologia: binakako gaiak eman, bertsoak entzun eta iruzkinak egin, taldean, bertsoaldi horretan aipagarri gertatu diren alderdiei buruz. Gidariak hari-mutur bati tira egingo lioke, eta iritzi-trukea abiaraziko luke: zerk funtzionatu duen, zerk ez, zer gustatu den, zer ez, zer aukera egin den, zer aukera egin zitezkeen, zergatik egin den egin dena (bertsolariak eurek esanda)...”